


## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresa produkzioa aurrera eramateko beharrezkoak diren jarduera guztiak egiteko gaitasunak ez dituenetz, jarduera batzuk kanpo enpresetara deribatu beharko ditugu, hauek funtsezko elkarteak bihurtuz. Gure kasuan, hiru jarduera esternalizatuko ditugu: sensorea, kanpo-estruktura edo “karkasa”-ren eta plaka elektronikoaren produkzioa.

Lehenik eta behin, dastamen-zentrora iristen diren estimulu neurologikoak jasoko dituen sentsorea beharko dugu, baita hauek prozesatu ondoren estimulu berriak eragiteaz arduratzen dena ere. Kasu honetan, bai diseinua bai produkzioa kanpo enpresa baten esku utziko ditugu.



Bestalde, beste enpresa batek plaka elektriko bat eraikiko digu. Honek sentsoreak jasotako informazioa prozesatu eta hari erantzuna emateko ardura izango du; hau da, estimulu neurologikoak aldatzeko seinalea emango duena izango da. Honi esker ere sentitu nahi den zaporea aukeratzeko aukera izango du bezeroak.

Beste aldetik, kanpoko egiturak bi faktore izango ditu, lehenengoa buruarekin kontaktuan dagoen zatia eta bestea kanpoan kokatuta egongo den plaka edo pantaila txikia. Proiektu osoaren diseinua gurea propioa izango da ez degu diseinatzaileen beharrik, baina honen produkzioarako bi hornitzaile desberdin beharko ditugu, bata plaka edo pantailatxoaren produkzioarako, honek zaporeak aukeratzeko ahalmena emango digu; eta bestetik, buruarekin kontaktuan dagoen zatiaren produkzioarako.

